

Nélida Zaitegi, lehendakaria  
Ana Marta Iriarte  
Josean Bueno  
M<sup>a</sup> Teresa Ojanguren  
Begoña Pedrosa  
Ismael Redondo  
Eva Blanco, idazkari teknikoa

## 19/14 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko abenduaren 12ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailari baimena ematen diona Gasteizko udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, Jose Uruñuela udal dantza kontserbatorioa integratzeko lege-proiektuari buruzkoa.

## I. AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 30. xedapen gehigarriak honako hau dio: "Autonomia-erkidegoek ikastetxe publikoen sarean integratu ahal izango dituzte -beren parlamentuen lege bidez ezarriko dute nola eta zer prozeduraren arabera- toki-administrazioen titulartasuneko ikastetxeak, baldin eta legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, baldintza sozioekonomiko kaskarrak dituzten edo eskolatze-premiei erantzuteko lan aitortua egiten duten ikasleei arreta ematen badiete, eta dena delako toki-administrazioak sare horretan sartzeko borondatea adierazten badu.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 16. artikulua araberak, Euskal Autonomia Erkidegoa bada gai, eskumenez, hitzarmenak sinatzeko. Artikulu horrek Autonomia Erkidegoari esleitzen dio irakaskuntzaren arloko eskumena, hedadura, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, baina Konstituzioaren 27. artikuluari eta hura garatzen duten lege organikoei kalterik egin gabe, eta, era berean, Espainiako Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenei kalterik egin gabe.

Bestalde, Gasteizko Udala "Jose Uruñuela" udal-zentroaren titularra da. Bertan, dantzako oinarrizko irakaskuntzak eta irakaskuntza profesionalak ematen dira.

## **. II. EDUKIA**

Artikulu bakarrak Hezkuntza Administrazioari baimena ematen zaio Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean sartzeko.

Azken Xedapenak dio araua indarrean sartuko dela EHAAAn argitaratzen den egunetik aurrera.

## **III. BALORAZIOAK**

Kontseiluak positibotzat jo du Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala ikastetxe publikoen sarean sartzea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko abenduaren 13an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA